



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2017 URTERAKO HIRILUR ERREZIBOEN INFORMAZIOA

Hirilur erreziboak, edo kontribuzio bezala ezagutzen ditugun erreziboen inguruko informazioa jasoko duzue, berehala . Informazio hori Aldundiak bidaliko dizue , eta 2017 urtean eragina izango du .

Baliarraingo udalak dei honen bidez, informazio horren inguruko argibidea eman nahi dizue.

Dagoeneko badakizue, Baliarraingo udaleko erreziboa izan arren, horren kudeaketa, beste udaletan bezala, Aldundiako Ogasunak egiten duela. Hirilur erreziboan zenbat ordainduko den jakiteko, hau da urteko kuota zenbatekoa den jakiteko bi aldagai hauek kontutan hartzen dira :

Balio katastrala : Zoruaeren balioa eta bere gainean dagoen eraikinaren balioak osatzen dute .Balioa hauek 2001 urtean eguneratu zituen Aldundiak eta 2016 urtean berriro ere balio hauek eguneratu dituzte . Eguneraketa honetan, etxe eta baserrien balioa igo egin da, eta hori da zuk jasoko duzun informazioa .

Tipoa : Tipoaren porzentaia udalak erabakitzen du , eta tipo hau aplikatu eta urteko kuota kalkulatzeko da . Udalak azken urte hauetan tipo berdina mantendu du eta , 2017 urterako ere tipo berdina izatea aurreikusten du . Baliarraingo udaleko tipoa %0,18koa da, eta 2017 urtean ere berdina izango da .

Beraz , jasotzen duzuen informazioan balioa katastrala eta tipoa ikusiko dituzue eta ondorioz , 2017 urtean izango duzuen kuota ere jakingo duzue .

Zalantzarik baduzue , lasai etorri udaletxera eta argituko zaizue .

Baliarrainen , 2017eko ekainaren 1ean .

Udalak